

Kontakizun sinbolikoa**[Mohamed eta parroko gorria, 2000]**

Javier Rojo

El Correo, 2001-01-17.

Kontakizun sinbolikoa "Mohamed eta parroko gorria" deitzen da Martin ugaldek euskaraz idatzi duen azken liburua. Eleberri honen argumentu 36ko gerra garaiaren inguruan kokatuta dago eta urte horietako giro itogarriaren isla izan nahi du. Funtsean, eleberrian kontatzen da nola bizi zen urte horietan gizon marokoar bat Bilbo aldean, militarrentzat txerriak hazten. Argumentu honi erreparatzen badiogu, konturatuko gara osagai gehienak bitxi xamar gertatzen direla, eleberri honetan badagoela zerbait bertan agertzen diren osagaiak nahikoa sinesgaitz bihurtzen dituen. Esan liteke osagaiok, pertsonaiak eta hauen gorabeherak, baina baita lekuak eta ingurunea ere, estilizatuta agertzen direla, argumentuan bete beharko liketen funtzioa baino garrantzitsuago bailitza sinboloak diren aldetik har dezaketen balioa. Zeren osagaiok esanahi sinbolikoz zamaturik baitaude eta argumentuaren logikari jarraitu beharrean, sinbologiaren atzean gordetzen den giroaren azalpenari jarraitzen baitiote. Kontaera, bestaldetik, zatikatua da, eszena desberdinak agertuz. Irakurlearen lana eszena hauen arteko elipsi narratiboak betetzea litzateke. Elipsirako joera hau idazkeran bertan ere agertzen da. Beraz, testu ia alegoriko baten aurrean gaude. Irakurle batzuek, ordea, ironia nahiago.